

...eta

kittó!

916 zkia.
2015-I-23



Zuri-beltzeko munduko koloreak

R.P.S. Nº 14970 LLG.

2. betu-
rekoak
DOAN

zure mó beturreko
graduatuak
erostean

67€

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da besta oslekinza batzuetan erabili.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

R.P.S. Nº 14970 LLG.

+ OSASUN GODA

Dentistak



arat
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta
kolektibo handiekin
itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS: 53/13



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hartz-klíniketara
etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. o. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnua. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com



hartz-klínika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnua. 943 20 34 46 Tfnua. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

ASTEAN ESANAK

"Gaixotasunak osatzen lagun dezaketen bide guztiak jorratu behar ditugu. Eta arduratsuak izan. Esaterako, Italian lan egin dezakegu enbrioietatik erauzitako zelula amekin, baina inportatu behar izaten ditugu zelula horiek: ezin ditugu guk erauzi. Hori Italiako hipokrisia da"

(ELENA CATTANEO,
ZIENTZIALARIA)

"Gidaritzaren mailari dagokionez, %93k euren burua batatz bestekoaren gainetik ikusten du; eta hori ezinezkoa da, denok ezin gara-eta batatz bestekoaren gainetik egon. Nagusitasun ilusioa deitzen diot horri"

(TALI SHAROT,
ZIENTZIALARIA)

"Kezkagarria da jakitea gizakiaren erabakiak baldintzatzen dituen benetako indarra ez dela garaipenak ematen duen plazerra, baizik-eta galtzeko beldurra. Gaizkiak ongiak baino indar gehiago du giza-adimenarentzat: senar-emazteen artean ere, komentario kritiko bat konpentsatzeko beste bost atsegin behar dira"

(GURUTZ LINAZASORO,
SENDAGILEA)

"Inuitena herri primitiboa da. Danimarkaren menpe dago, baina bandera bat eman diete, ez gehiago. Oso garesti erosten dizkie eskulanak; baina, trukean, Danimarkak oso garesti saltzen dizkie whisky botilak. Eta inuitak, mozkorri esker, ez dira izozten. Baina nola da posible horrelako estatu batek, hain serioa eta antolatua izanda, horrelako zorakeria bat baimentzea?"

(ADOLFO ERASO,
GEOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KIKI EGIN.- Ume hizkeran ezkutaketa ibili. "Alkarri kiki egitten dabiz jolasetan".

KIKILI-USAIÑA.- Egurastu edo oratu gabeko geletan geratzen den usain txarra. "Etxe honetan, kikili-usaiña ez da falta".

KILI-KOLA/KOLO.- Gauzaren bat solte edo loka dagoenean. "Albagiñ bata, kili-kola daukat juan daneko aste betian".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berri, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITAERTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Herririk herri dabiz informaziñua zabaltzen.

"Zabaldu zure etxea" kanpaiñakuak bisitan

Astelehen eta martitzenian Eibarren egon ziran "Zabaldu zure etxea" kanpaiñako ordezkariak, Untzagako jubilaue etxiaren aldamenian. Eusko Jaurlaritzak, Alokabiderraren bittartez, alokairu sozialera bideratzeko etxebizitza hutsak mobilizatu nahi ditu kanpaiñarekin. Erabili barik, hutsik dagaizen etxien jabiak alokairuan emotera animatu nahi ditue eta gaur egunian horretara animatzen diranendako dagaizen programak eskintzen dituen abantailen barri emoten dihardue, herririk herri informaziño puntua ipiñitta. Kanpaiñako ardu-

radunen berbetan, "zabalkundiak garrantzi haundixa daka, etxebizitza hutsen jabiak Eusko Jaurlaritzak abian jarritako programen barri jaso deizen. Izan be, hórri esker euren etxiak Eusko Jaurlaritzaren berme osuarekin alokairuan emoteko aukeria dake, gobernuak, bestiak beste, hilleroko errentia kobrauko dabela edo etxia egoera onian bueltauko detsela ziurtatzen detselako". Informaziño gehixago jasotzeko 900 251 251 telefonora deittu leike edo, bestela, www.alokabide.euskadi.net webgunian sartu.

Osoko zuzenketia eta 16 partzial aurrekontuari

Eibarko EH Bilduk PSE-ren aurrekontu proposamenari osoko zuzenketia aurkeztu detsela azaldu eben eguaztenian, Igor Aldalur eta Igone Lamarain alkategaixak emondako prentsaurrekuan: "Lehen baloraziñuan adierazi genduan moduan, aurkeztu deskuen aurrekontu honek ez ditte eibartarren premiñak asetzen eta asko dauka hobetzeko". Halanda be, proposamena aberasteko ahalegiñari jarraituta, osoko zuzenketiarekin batera 27 proiektu batzen dituen eta 979.272 euroko 16 zuzenketa partzial aurkeztu zittuen: "Gure proposamenak bost arlotan banatu ditugu: hiri eredu barrixa; gizarte kohesiñua; euskalduna eta kultur anitza; ezkerretik eraikia; eta partehartzaillia. Eta bloke baktxaren barruan proiektu konkretueri lotutako zuzenketak proposatzen ditugu". Zerrendia osatzen dabenen artian, bestiak beste, eraikiñen azterketa teknika egitteko eta efizientzia energetikua lortzeko laguntasanak emotia, ludoteka bat sortzia, euskeriaren plan estra-



tegikua idazten hastia, 50 urte beteko dituan Euskal Jaixarendako dirulaguntza igotzia, hutsik dagaizen etxiak alokairuan emotera animatzeko laguntasanak emotia eta partehartziaren inguruko ordenantza sortzia dagoz. Azaldu dabenez, aste honetan hasi ditue negoziaziñuak eta, aurreko urtian zabaldutako bidiari jarraituta, oinguan be euren proposamenetako batzuk behintzat onartzia espero dabela diñue: "Aurkeztu ditugunak proiektua asko hobetzen dabela eta herritar eta alkartien premiñeri erantzuten detsela pentsatzen dogu, horregaitik adostasun batera aillegatzia espero dogu".

Alegaziñuak ordenantzari

Abenduaren 3an plenuan bozkatu zan euskeriaren ordenantza proposamenari 19 alegaziño aurkeztu detsaz EAJ-k, "euskeriari merezi dabon moduko bultzadia eta garrantzixa emoteko". Jeltzaliak aittatutako plenuan bertan aurreratu eben ordenantzari zuzenketak egitteko asmua zekela, eta "goberneruaren euskeriarekiko konpromiso faltiarekin nahigabetuta" agertu dira, "ez dabelako euskeriaren erabilleria lehenetsi eta ordenantza korrika eta presaka egin dabelako".

Eva Juez bozeramaille eta alkategaixak esandakuari jarraituta, "ez jaku bidezkoa begittantzen elebidunak garan zinegotzixak ekimen publikuetan euskeraz eta gaztelerez egin bihar izatea eta, aldiz, barririk gaztelerez berba egitten dabonak beste betebeharririk ez izatia". Horrekin batera, udal saillekin zein hizkuntzatan komunikatu nahi dabon herritarren esku egotia proposatu dabe, "eta ez ordenantzak jasotzen dabon moduan saillekin esku egotia, izan be udal saillek zerbitzua euskeraz eta gaztelerez eskintzera derrigortuta dagoz". Euskal erakundien arteko harremanetan be euskeriari lehentasuna emotia eskatu dabe, beste kontu batzuekin batera. Udal taldiari "hobekuntza teknika egitteko eta forma-akatsak zuzentzeko" eskatu detsa.



Lau igogaillu barri martxan

Aurreko asteko barixakuan inauguratu eben Txaltza Zelai eta Urki bittarteko igogaillua Miguel de los Toyos alkatiak, udaleko beste arduradun batzuekin batera. Eta aste honetan beste hiru igogaillu barri ipiñi ditue martxan, bata bestiaren atzetik: astelehenian, Portale aldamenekua; eguaztenian, Legarrekuak; eta atzo arratsaldian, Amañakua.

Gerra zibillaren interpretaziño zentrua

Hillaren azken egunian, urtarrillaren 31n inaugurauko dabe "Gerra Zibilla Eibarren interpretaziño zentrua" Arrateko kolonian. Gure herrixa inguratzen daben mendixetan egon zan gerrako fronteari eta bere aztarnari eskindutako zentruaren presentaziñua Jesus Gutierrezek eta Jose Luis Valenciagak egingo dabe. Interpretaziño zentruaren inauguraziñuaren harira, bestalde, lauzpabost orduko iraupena eukiko daben ibilbide historikuak antolatu dittue otsaillaren 7rako (gazteleraz), 21erako (euskeraz) eta 28rako (gazteleraz) eta martxuaren 7rako (euskeraz). Egun bakotxian 20 laguneko taldiak egingo dau Arrate eta Akondia inguruko ibilbidia Arrateko koloniatik hasitta, eta parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, urtarrillaren 26tik otsai-



llaren 4ra bittartian, 943708435 telefonora deittuta edo kultura@eibar.net helbidera idatzitta. Horrekin batera, aittatutako egunetan, 10.00etatik 14.00etara, interpretaziño zentrua ezagutu nahi dabenendako ate irexien jardunaldixak egingo dittue.

San Andres eskolakuak sukaldari



Atzo Mireia Alonsok gidatutako sukaldaritza taillarrarekin agurtu eben Aste Gastronomikua San Andres ikastetxeak. Eskolia sortu zala 50 urte bete dirala ospatzeko prestau daben programaren barruan, aste guztian sukaldaritzan trebatzeko aukeria euki dabe ekimenian parte hartzera animau diran ikasle eta gurasuak. Atzoko taillarra gidatu eban Mireiak ez eze, aurreko egunetan Portaleko sukaldian bisitan egon ziran Aurora Cid, Juan Luengo eta Enrique Vicente sukaldarixekin be, edarto pasau dabe errezeta goxo-goxuak preparatzen.

autuan

TOPAKETIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAK, Kontseiluak eta UEUk "Hizkuntza eta Lurraldea. Erronkak & Tresnak" jardunaldixa antolatu dabe. Antolatzaillien berbetan, "euskeriaren arnaguniak babestia ez eze, bihotz-guniak hórrek ezinbestekuok zabaltzia be helburu daken ekimeneri babes juridikua emoteko oiñarrixak" aztertu nahi dittue. Topaketak otsaillaren 5 eta 6xan egingo dira, Donostian, EHUren Carlos Santamaria zentruan. Matrikula duan da (www.ueu.eus webgunian).

EH MUS TXAPELKETIA

Euskal Herriko VII. Mus Txapelketia abian da eta domekan, 16.00etatik aurrera Eibarko kanporaketia jokatu da Deporren. Bikote bakotxak 20 euro pagau biharko dittu izena emotian (txapelketia jokutzen hasi baiño pixka bat lehenago edo 943-207044 telefono zenbakira deittuta). Informaziño gehixago www.ehmus.org helbidian.



MIREIA ORMAETXEA LUIS

Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzean.

DAVIDen kuadrila



Funeraria Ehorztetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
Funeuskadi

asteko
27.528
datua

biztanle dittu Eibarrek, 2015eko urtarrillaren 1eko datuen arabera: 14.172 andrak dira eta 13.356 gizonak. 65 herrialdeetatik gurera etorritako atzeritarrak 1.942 dira.



Datorren hillaren hasieran, otsailaren 7xan eta 8xan egingo da Estetikaren Eibarko I. Azokia, udalak deituta aurreko astian egindako billeran batu ziran 22 establezimenduetako ordezkariak hala erabagitta. Estetika arluan biharra egitten dabena azokan parte hartzeko aukeria dake oindiok, Pegoran izena emoteko epia datorren asteko eguaztenara arte (hillaren 28ra arte) zabalik egongo da eta.

Udaleko Ekonomiaren Garapena eta Enplegua Saillak, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin al-

Jeltzaliak arazo larrixenak aurrekontutik kanpo daguezela diñue

Martitzenian Eva Juez bozeramaille jeltzaliak prentsaurrekuan azaldu ebanari jarraituta, "aurrekontu proposamenak herrixan dittugun arazo larrixeneri, tartian krisi ekonomikuari, ez detse erantzunik emoten". Gauzak holan, EAJ-PNV udal taldiak aurrekontu proiektuari osoko zuzenketia aurkeztuko detsala aurreratu eban. Alkategai jeltzaliaren berbetan, "gobernu sozialistak aurkeztutako aurrekontu proposamenak ez dittu zihetzen krisi ekonomikuari aurre egiteko lehentasunak, epe laburrekoa eta itxurazko proiektua da eta ez detse Eibarko

benetako arazuari urtenbiderik emoten. EAE-ko udalerriguztien artian, langabezixa tasan igoerarik haundiña Eibarrek euki dau. 2014. urtian 120 langabetu gehixagorekin tasak %5'63 egin eban gora". Hórren aurrian epe luzerako estrategixia lantzeko premiña daguala pentsatzen dabe. Horrekin batera, udal gobernua "botuak erakartzen dittuen obreri garrantzixa emon detsela" salatu eben agerraldixan. Juezen berbetan, "aurkeztu dittuen proposamenek ez detse hiri proiektu jakin bateri erantzuten, ez dabe enplegua sustatzeko, industria bul-



Eva Juez bozeramaille jeltzalia.

tzatzeko ezta behartsueneri laguntzeko neurriak aurkeztu. Horrekin batera, ez dago herritarren bizi kalidadia hobetzeko ezta gaztiak Eibarren geratzia lortuko daben hirigintza proposamenik be".

Estetikari eskindutako azokia otsaillian

karlanian antolatutako azokia Untzagan egingo dabe, horretarako bereziki ipiñiko daben aterpiaren babespian. Antolatzaillak argittu dabenez, estetikaren alorreko profesional eta denda guztiak hartu leikie parte: bedar-dendak, illeapaindegixak, estetika buleguak, lurrindegixak, drogerixak eta baita parafarmazia produktuak saltzen dittuenak be. Zapatuan (otsaillaren 7xan) egun guztian zabalduko dabe, 10.00etatik 20.00etara eta domekan, barriz, bakarrik goizez (10.30xetatik 14.00ak arte).

Matxariatuz aurrera doia

Etorkezian Matxaria zelakua izango dan zihetzeko asmuarekin udalak abiarazittako Matxariatuz proiektua aurrera doia. Aurreko asteko eguenian egindako diagnostiko taillarra eta gero idatzi daben txostenak bertatik etara dittuen emaitza eta ondorio nagusiñak batzen dittu eta nahi dabena taillarretako arduradunak idatzi dabena irakortzeko aukeria dauka, www.rb3innovacion.com helbidian sartuta, proiektuen atalian Matxaria diñuan tokixan klikatuta. Aste honetan, eguaztenian egindako lan saiuan daben artian adostutako etorkizuneko agertokixa diseinatzeko biharrian jardun eben eta, aurreikusittako egutegixari jarraituta, hurrengo taillarrak datorren hillian garatuko dira: otsaillaren 4an ekintza eta estrategixarik egokixenak diseinatu dittue eta otsailaren 18xan, barriz, ekintza-plana zihetzuko dabe. Saio bixak 18.30xetan hasiko dira, Portalean (Armagingtaren Museuan).




JUNKAL!

"Zure alaitasuna gurekin geratuko da BETIRAKO"

PRESOEN ALDEKO OSTEGUNEKO ENKARTELADAKO LAGUNAK





Bere bidaietan ateratako 23 argazki erakusten ditu Joseba Arginzonizek El Corte Ingleseko Ekitaldi Aretoan. Eibarko argazkilaria zuri-beltzekoaren aldekoa da eta jendea hartzen du protagonistatzat, "beti ere eurekin errespetuz jokatuta". Hainbat erakusketa egin ditu dagoeneko eta bidaiak ere hasi da prestatzen argazkiei begira. Erakusketa ere ibilbide gisa antolatu du, "ez da kronologikoa, baina Portugalen hasi eta etxera bueltatzean amaitzen da". Erakusketa martxoaren 1era arte egongo da ikusgai, egunero 14.00etatik 21.00ak arte.

JOSEBA ARGINZONIZ, argazkilaria:

"Hirietan eraikinak ateratzen ditut, baina jendea interesatzen zait"

- Zaldibarren bizi bazara ere, Eibarren jaioa zara, ezta?

Jaio bai, baina lehenengo 13 urteak Zaldibarren igaro nituen, han dago-eta gure baserria, Goierri auzoan. Baina egunero etortzen naiz Eibarrera, beharrera. Gurasoak Eibarren bizi dira eta eguerdian eurekin egoteko aukera daukat. Durangon ere bizi izan naiz eta orain Zaldibarrera bueltatu naiz.

- Noiztik argazkiak ateratzen?

25 urte izango dira dagoeneko: ikastaro bat egin ostean, eta gaur arte.

- Bidaiak argazkien arabera antolatzen dituzu?

Ez, baina argazki kamara ezin da falta. Bidaia prestatzen dugunean informazioa bilatzen dut ikusi gura dugun gauzei buruz, argazkiak barne. Eta, behin bidaiari gaudela, gehien gustatzen zaidana da jendea eta euren ohiturak harrapatzea.

- Zelako kamarak erabiltzen dituzu?

Reflex bat eramaten dut, Nikon d700a, eta bi edo hiru objektibo: batzuetan 24-70mm f2.8, eta 70-200mm f4 eta, bestee-tan, objektibo finkoak 24 mm, 50 mm F1.4, 135mm f2, arinago joateko.

- Zergatik zuri-beltzean?

Ara Güler, Henri Cartier-Bresson, Sebastião Salgado, Dorothea Lange, ... eta argazki prentsa, fotoperiodismoa ere deitzen dena, betidanik gustoko izan dudalako.

- Kolorera bueltatzeko asmorik bai?

Gustora nago zuri beltzean.

- Tokiak, pertsonak... zeren bila joaten zara kamararekin?

Lekuaren arabera. Adibidez, New York-en eta hirietan eraikinak, monumentuak, parkeak ezin dira atera barik laga... Baina, batez ere, jendea.

- Erakusketan merkatuak agertzen dira, batez ere. Zergatik?

Leku ona delako pertsonekin harremanak egiteko eta, horrez gain, bizitzaz beteta daudelako.

- Ze herrialdeetako argazkiak dira?

Kuba, Costa Rica, Amsterdam, Berlin, India, Thailandia, ... Onena bertan ikustea izango litzateke, El Corte Ingleseko Ekitaldi Aretoan.

- Jendearekin negoziatzen dituzu argazkiok? Ezustean harrapatzen dituzu?



Segun eta nolan: batzuetan jendearekin berba egin ondoren ateratzen dizkiet eta, besteetan, ezer esan gabe, baina errespetuz.

- Arazo berezirik izan duzu?

Ez, askotan baimena eskatzen dut eta, jendeak nahi ez badu, ez dut ateratzen...eta kitto!!!

- Bisitatu nahiko zenukeen herrialderik?

Mundua handia da, baina seguraski Asiako herriren bat esango nizuke. Horretan gabilta, Vietnamera joateko asmoe-kin. Zeinek daki!!!

- Egin duzu beste erakusketarik?

El Ambigún Eibarren, Infreñu tabernan Ermuan, Valladolid-en, Burgos-ko herrir-ka batean eta Zaldibarren Ilargi kolekti-boarekin. Gustoko ditut argazkiak erakus-tea ta hor dago beti ikusgai josebaargin-zonizmartin.com webgunea.

- Lehiaketetan parte hartzen duzu?

Bai. Eta baita argazki rallyetan ere.


- Zer baloratzen duzu gehien argazki ba-tean?

Zer esaten didan, zer transmititzen, be-giradak, konposaketa. Momentua, azken batean.

- Zer esan dizute erakusketari buruz?

Momentuz jendeak gustoko ditu, poli-tak direla eta ea salgai dauden... Galde-tzen didate ere nora izango den egingo dudan hurrengo bidaia eta halako gau-zak... Esperientzia polita da.

Eibar-Sahara alkartekua, urtero lez, Saharako Illargi Gorrixak eskatutako produktuak batzeko kanpaiña ipiñi dau martxan. Urtarrillaren 31ra arte, Tindufeko kanpamenduetan bizi diran errefuxiatuerei laguntzeko janarixa eta premiñazko beste produktu batzuk batuko dittue, datorren hillian, otsailaren erdialdera urtengo daben 11. Sahararen Aldeko Euskal Karabanan kanpamentuetaraiño eruateko. Lagundu nahi dabenak lekaliak, pasta, arroza, hegaluzia eta sardiñak olixotan (ahal dala, kontserban), azukria eta konpresak erosi eta hórretxek batzeko dendetan prestatu dittuen tokixetan lagatzeko aukeria daka. Alkarteko boluntariuak hillaren amaieran billa juango dira. Eibarren Eroskin (Urkín, Urkizun eta Ipuruan), BM supermerkatuan, Villalban, Isasi okindegixan eta El Corte Inglesian dabiz produktuak jasotzen; eta Elgoibarren, Eroski eta Netto supermerkatuetan.



Itxaropena pizteko karabania preparatzen

Herritar morduak parte hartzen dau urtian behin Saharara janarixa bidaltzeko kanpaiñiarekin eta Miguel de los Toyos alkatiak be, Eibar-Sahara alkartekuen deixari erantzunda, kanpaiñari babesa publikoki emon nahi izan zetsan, martitzen goizian dendara juanda eta errefuxiatuerei bidaltzeko produktuak erositta, bere adibidiari jarraituta "beste asko gauza bera egittera animatzeko esperantzarekin". Aurten hamaikagarraren aldiz Saharara abiatuko dan Piztu Itxaropena karabania errefuxiatuerei janarixa emoteko premiñazko proiektua dala azpimarratu dabe Eibar-Sahara alkarteko ordezkariak: "Saharako errefuxiatuendako janarixa batzia, gizalegia izatiaz gain, funtsezkoa be bada, bestela, laguntza hori jaso ezian,

aurrera egitteko aukera gitxi emoten dittuan basamortu hartan baztertuta eta egoera laztian bizi diranak nekez eukiko leukiellako bizirauteko aukerarik".

Gutariko gehixenak nekez imajiñau geinke zelako gogorra dan errefuxiatuen eguneroko bizitza, baiña alkartekua gomendatzen dabenari jarraituta, momentu batez euren to-

kixan ipintzeko ahalegiña egin eta kanpamenduetan bizi diranak zelan sentiduko diran geure buruari galdetuz gero, hortxe dago alkartasunerako gakoa: "Hori da mugiarazten gaittuen motorra eta hango biztanliak egunero sufritzen ari diran borroka horretan gure laguntasuna eta alkartasuna emotera bultzatzen gaittuan indarra". Izan be, ezagutzen ez dittugun arren, gure moduko gizakixak dirala argi euki bihar dogula diñue: "Ez dabe aurpegi bako talde bat osatzen, eurak be personak dira, izenez eta izanez: Jamila, Mohamed, Sid, Maimuna, Ahmed, Ali, Cheij... eta ho-



Urtarrillaren 31ra arte batuko dittue elikagaixak Eibar eta Elgoibarko supermerkatu eta denda laguntzaillietan. SILBIA HERNANDEZ

Itzadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

lan, 200.000 izen osatzeraiño. Han bizi dira eta bakotzak bere historia daka, egunero aurrera egiten ahalegintzen dabiz, ikasi nahi dabe, famelixa osatu, biharra egin... Gure moduan, bizitzaz gozatu nahi dabe, gure eskubide eta duintasun berbera dituelako, eurak be zoriontsu izateko jaixo diralako. Hori da benetako justizia".

Horregaittik benetan eskertzen dabe laster ailegauko dan karabaniak eruango detzen laguntasuna, euren bizimodu gogorra pixka bat arintzeko aukeria eskintzen detselako: "Hamengo egoera ekonomia eskasa izanda be, jendiak oso ondo erantzuten dau urtero eta horregaittik behin eta barriro eskertu nahi detsagu jendiari emoten daben laguntasuna. Bakotzak ahal dabena emoten dau, baiña edozelan be laguntza guztia ondo hartuko dogu. Janarixa emoten daben jendiari ez eze, kanpaiña aurrera etartzeko atiak zabaldu deskuezen denda eta supermerkatu guztieri, eskoleri, udalari, nagusixendako ojaliak eta sendagaixak gorde eta guri emoten deskuezen botikeri be... dane-ri eskertu bihar detsagu laguntasuna, horri esker iazko karabanandako Eibarren eta Elgoibarren 2.755 kilo janari, 70 kilo konpresa, 750 kilo ojal eta 18 botika-kaja batzia lortu genduan eta".

Elbarrixendako armozua

2013ko Gabonetan eta iazko apirillian Eibar Sahara alkartiak 2.500 euro batzia lortu eban Untzagan bigarren eskuko liburuak salduta eta diru hori kanpamenduetan bizi diran elbarrikeri laguntzeko erabilli eben. Orduan be bertan laguntzen jarduten daben al-

kartekuak eskatutakua erosteko erabilli eben dirua: "Eskatu zeskuen moduan, armozurako bihar zittuen produktua erosi genduazen". 1.500 euro gailletak erosteko erabilli zittuen, 500 euro mermeladarako eta beste 500 euroak kakaua erosten juan ziran. Baiña alkarteko boluntarixuen biharra ez zan hor amaittu, ez horixe! Produktuak erosi eta gero, asteburu batian dana kamioian kargatzen ibilli ziran alkarteko kidiak, ondoren, kamioiak kanpamenduetara ailegatzian, Getxo Pro Sahara ATFA alkartiaren bitartez laguntasun horren premiña zekenen artian banatzeko.

Josteko makiñak eta bizikletak

Eibar-Sahara alkartian gaur egun dozana bat lagun dagoz, "baiña holako kanpaiñak eta bestelako ekitaldi berezixak antolatuzian beti etortzen jakuz beste lagun batzuk, ahal daben neurrixan laguntasuna emoteko. Alkarteko boluntarixuak Eibar eta Elgoibarkuak dira eta badira urte batzuk kanpamenduetan alkarrekin proiektu bat martxan ipiñi ebela: premiña berezixak dittuenendako eskoleri laguntzeko proiektua da guria eta, umieri ez eze, nagusixeri be laguntzen detsagu, bestiak beste josten erakutsita". Proiektua garatu ahal izateko, bestiak beste, urtian birritan Untzagan erabillittako libu-



Premiña berezixak dittueneri egokittutako eskolak emoteko proiektua garatzen dihardue Eibar Saharakuak.

ruen azokia ipintzen dabe, salmentari esker batzen daben dirua horretara bideratzeko. Azaldu deskueenez, "abenduan bertan alkarteko kidiak bat errefuxiatuen kanpamenduetan egon zan, han garatzen dihardugun proiektua bertatik bertara ezagutzen eta bidaltzen dogun laguntasuna bihar dan tokira eta bihar daben jendiaren eskuetara ailegatzien dala argi ikusi dau".

Karabania osatzeko urtero eskatzen dittuen produktuekin batera, alkarteko kidiak gustora jasoko leukiez erabilli barik etxe askotan alperrik daguaz josteko makiñak eta bizikleta estatikuak, gauza bixak Eibar eta Elgoibarko boluntarixuak kanpamenduetan martxan daken proiekturako oso lagungarriak izan leikiazelako. Baten batek holakoren bat emoteko moduan badaka, alkartekuekin kontaktuan ipiñi (659591609 edo 665704137 telefonuetara deittuta) eta eurak billa juateko prest daguazela azaldu deskue.



943 20 33 76
943 20 88 47
688 67 89 34

**LORA
DENDA**

Larica

T. Etxebarriako El Corte Inglés-ean





Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Rhòl Estilistak



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreak / 1. solairua

Tel: 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)

Gaur egungo gazteen zaletasunen zerrendari erreposoa ematen hasiz gero, segueruenik aisialdia betetzeko hamaika aukera agertuko zaizkigu, hariak eta jostorrazak erabiltzea eskatzen duen zaletasunen batera ailegatu baino lehen. Hala ere, joste-lanekin benetan ondo pasatzen duten gazteak egon badaude eta horietako bat da elkarrizketa honetako protagonista: Ainhoa Gomezen kasuan hasieran zaletasuna zena ogibide bihurtzeko bidean dago, urrian Juan Gisasola kalean "Labores de Ainhoa" denda zabaltzera animatu zenez geroztik.

- Nola animatu zinen horrelako denda zabaltzera?

Joste-lanak asko gustatu zaizkit betidanik. Urteak daramatzat gurutze-puntua eta patchwork-a egiten, gurutze-puntua amamarekin ikasten hasi nintzen eta, denborarekin, horrelakoetan trebatzeko ikastaroak egiten joan naiz, bi horietan espezializatzea ailegatu naizen arte. Enpresa batean beharrean nengoen, baina egoe-rak ez zuen itxura onik eta, okerrera egin aurretik, nik alde egitea erabaki eta denda zabaldu nuen. Aurretik ere horrelako lanak en-karguz egin eta saltzen nituenez, saltoa ematera animatu nintzen.

- Hasi berria zara, beraz. Nola erantzun du jendeak orain arte?

Ba poliki-poliki geroz eta jende gehiago etortzen hasi da, egunetik egunera jende gehiagok daki denda zabaldu dudala eta, orain arte antzerako dendarik ez denez egon, joste-lanak egiten dituztenetako asko dendan zer dagoen ikustera eta erostera gerturaten dira. Ahoz-ahokoarekin batera, askok dendaren berri internet bitartez izan du.

- Zaila da horrelako lanak ondo egitea?

Beste gauza askorekin moduan, honetan ere denbora behar izaten da eskua hartzera ailegatzeko. Horretan esperientziak

zeresan handia dauka. Gurutze-puntuaren kasuan, adibidez, lana ondo egina dagoen ala ez atzeko parteari begiratuta ikusten da: korapiloak eta bestelako akatsak aurreko aldean barik atzekoan agertzen dira, horregatik gurutze-puntuan aditua ez den norbaitentzat horrelakoak oharkabean pasatzea normala da, baina dakien batek lanari buelta eman eta berehala ikusiko ditu. Denda zabaltzearekin batera, nahi duenarentzat klaseak ematen hasi naiz eta orain arte hiruzpalau ikasle animatu zaizkit.

- Gurutze-puntuan eta patchwork-ean, bietan trebea zara, baina zein duzu gustokoena?

Biak gustatzen zaizkit, baina gurutze-puntuan patchwork-ean baino pazientzia gehiago behar da. Eta biak konbinatuta oso gauza politak egiteko aukera dago.

- Laster horrelako joste-lanen inguruko azoka egingo da, ezta?

Bai, datorren astean, eguenean hasi eta otsailaren 1era arte Barakaldoko BEC-en azoka egingo da eta ni ere han egongo naiz. Eraikuntza moduan nire lehen azoka handia izango da, baina nahiko lasai nago. Aurreko urteetan ikusle modura joan naiz eta badakit giro ona egoten dela eta parte hartuko dutenetako batzuk ere ezagutzen ditut.



Ainhoa Gomez Mochales
(LABORES DE AINHOA)

"Gurutze-puntua eta patchworka batuta emaitza polita da"

LAN ESKAINTZA

Pertsona bat behar da Eibarko taberna batean sukaldean laguntzaile lanak egiteko asteburuetan

Bidali curriculum-a argazkiarekin:
40 postakutxatila 20.600 EIBAR



● tartak
● enkarguak
● etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Osso: Haritz Lete eta Sergio Ruizen proiektu berria

Osso deitu diote Haritz Letek (Kokein, Cobra) eta Sergio Ruizek (Eraso!) osatu berri duten bikoteari. Ohiko rock taldeen osaketa tradizionaletik aldentuta, musikariek bikotearen aldeko apustua egin dute abiatu berri duten proiektuan, rocka egiteko gitarra, ahotsa eta bateria, hiru horiek erabilita. Diotenez, *"teknologia berriari esker eta anplifikatzaileak nola erabili ikasita, gaur egun posible da baxu bariko taldea osatzea"*. Eta sinesten ez duenarentzat, eurak dira horren adibiderik garbiena.

Aurretik ere musika munduan ibilbide luzea egina du-

te biek eta orain dela egun batzuk, hilaren 14an aurkeztu zuten Donostian "Paraxuta" (autoedizioa, Promomusika), bikote moduan grabatu duten lehen diskoa.

Lana hamar kantuk osatzen dute eta, abesti guztietan rocka ardatza izanda ere, kantuek moldaera ezberdinak dauzkate. Abesti batetik bestera erritmo aldaketa handia dago, baina berrikuntzarik nabarmenena ahotsetan dagoela diote adituek: *"Batuetan bakarka eta besteetan elkarrekin, bi ahotsak maisuki uztartzen dituzte, emaitza erakargarria lortuz"*.



Sergio Ruizek eta Haritz Letek "Paraxuta" lana aurkeztu dute.

"Paraxuta" CDan edo formatu digitalean eskuratzeko bide ezberdinak daude: Bandcamp bitartez (osso.bandcamp.com/album/paraxuta), Amazonen eta baita iTunesen ere. Horrez gain, laster lan berria zuzenean ezagutzeko aukera izango

da, dagoeneko kontzertu batzuetarako datak lotu dituzte eta: martxoan Durangoko Plateruenan, Bilboko Kafe Antzokian eta Oñatiko gaztetxean joko dute eta apirilean, berriz, Tolosako Bonberenea Sutanen eta Elorrioko gaztetxean.



Urtarrilaren 9an Bilboko Kafe Antzokian Joseba B Lenoir Trio-rekin batera jo zuen Napokak. JON IRAUNDEGI

Napoka Iriaren azken zuzenekoak martxoan

Bolada batean zuzeneko kontzertuak emateari lagako dio Napoka Iriak hemendik gutxira, martxoan. Aste honetan bertan aditzera eman dutenez, *"gelditzeko beharra sentitu dugu, berrindartu eta musikari berriz gogotsu ekiteko. Bien bitartean beste proiektu batzuetan sartuta ibiliko gara eta, beraz, ez gara urrutira joango"*. Hemendik egun batzuetara martxoan eskainiko dituzten "azken" zuzenekoak berri emango dutela agindu dute. Beraz, lasai egon, jarraitzaile zarenak zuzenekoaren agendak antolatzen joateko nahikoa denbora izango duzue eta.

www.aldatze.org

aldatze

IV. ALDATZE
DANOK GARA
urtarrilaren 31n
11.00etan



GREMIOEN GIDA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

SUP SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad
ipareleks.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
Juan Gisasola, 4 943 257 869
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajttoficina.com tlf. 943 20 18 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Eraikuntza Erreformak Igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa Klimatizazioa Eguzki Energia

Jardines Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA ZORU ERRADIATZAILEA EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES **AIXA**
José Luis Irionda

Pintura orokorra Margotutako paperak Zoruen kolokazioa PVC zoruak Maketak Alfonbrak Kortinak Etxerakoak Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak Pinturak Dekorazioa

Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Emakumeendako defentsa pertsonalerako saioa

Kalamua judo klubaren lokaletan emakumeen defentsa pertsonalerako ezagueraz jabetzeko lehenengo saioa egin zen asteburuan. Manu Agirre eta Julio Gallego espezialitate horretan titulaturakoen aginduetara, eta bi or-

duko saioan, klubeko neska-mutilen 20 bat ama izan ziren, gerriko beltza eskuratu duten kirolari batzuen laguntzarekin. Saioak doakoak dira eta klubetik emakume guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.



Saioan parte hartu zuteneko batzuk Kalamuako instalazioetan.



Durango bakarrik geratu da lidergoan Koskorri irabazi eta gero.

Jardunaldi argigarria foball zaletuan

Durango eta Koskorren arteko partidua orain arteko berdinketa apurtu eta sailkapenean lider bakarra izateko balio izan zuen. Bizkaitarrak 4-2 nagusitu ziren azken jardunaldian (Xabierrek hiru gol eta Iñakik bestea irabazleentzat eta Carolorenak galtzaileen kasuan) eta orain hiru puntuko tarte ireki dute Koskorrekiko. Aipatuta-

ko partidua izan zen jardunaldiko garrantzizkoena, baina azken bi sailkatutakoen garaipenak ere deigarriak izan ziren, batez ere Irukiren kasuan, azken honek lehenengo garaipena lortu baitzuen: 5-2 Fontaneria Mujikari. Oishik, bestalde, 2-0 garaitu zuen aurretik zuen Caserio Slow XOK, eta sailkapenean aurrea hartu dio.

Igerilariak txapelketei aurre egiteko prest

Aurreko asteburuan Urbat-Urkotronik-eko benjamin eta alebin mailako igerilariak Legazpin izan ziren Kirol Zehaztasun ligako 2. jardunaldian. 24 igerilari bide onean daudela frogatu zuten eta hainbat lehenengo postuetan sailkatzea lortu zuten. Aste honetan Urbateko infantil, junior eta absolutoen txanda da. Ligako 4. eta azken jardunaldian hartuko dute parte, test garrantzitsua otsailean jokatu diren Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak ondo prestatzeko.



Txapelketako lehia eta Irustaren debuta Astelenan

Irusta atzelariaren debuta izango da Astelena frontoian domeka arratsaldean. Aspeko ordezkariak Altuna III.a aurrelari gaztea izango du aitabitxi jaialdia hasteko partiduan Jakak eta Merinok osatutako bikoteari aurre egiteko. Ondoren jokatu den partidu nagusian Berasaluze II.a-Zubieta eta Artola-Albisu bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Jaialdia amaitzeko, bestalde, Apezetxea-Tolosa eta Mendizabal III.a-Larrinaga bikoteek jardungo dute, nor baino nor.

Hain galera handia jasan ondoren, **senideek eta senargaiak** bihotz-bihotzez eskertu nahi genituzke une zail hauetan jasotako maitasun eta laguntasun keinu guztiak.

MIREIA ORMAETXEA LUIS (15/01/14)

Sukiako gazteak garaile areto-foballean

Kadeteetako taldeak 4-0 irabazi zion Inter Intraurondori Eibarren eta infantil mailakoa 3-12 nagusitu zen Zarautzen. Kevin, Eneko, Jon eta Del Cabo izan ziren goleatzaileak kadeteen partiduan. Hala ere, neurketa horretan Juanek txartel gorria ikusi zuen eta zigor gorra jaso dezake. Taldea 0-10 irabazten joan zen infantil mailako partiduan, Ikerrek lau gol sartu zituen, Asierrek hiru, Fikrik bi eta Pablok, Iagok eta Iñigok bana. Jubenil mailako norgehiagokan, bestalde, Cafeteria King Kong-ek 4-6 galdu zuen Pizza Berrirekin.



Eibar Rugbyak 18-24 galdu zuen Unben

Crat Coruñaek eibartarrak mendean hartu zituen eta Pello Iturbek prestatzen dituen mutilek bigarren itzuliko lehen porrota jaso zuten Unben jokatuako partiduan. Hala ere, eibartarrek puntu bonus defentsiboa eskuratu zuten. Atsedenaldira galiziarren aldeko 11-17koarekin joan ziren bi taldeak. Eibar Rugby Taldeak jardunaldia aprobetxatu zuen taldeak dituen ba-

besleen lana eskertzeko eta atsedenaldiran opariak banatu zizkien. Behin partidua amaituta, bazkaria izan zuten soziedade batean.

16 eta 14 urtetik beherakoek, bestalde Bera-Berako ordezkarien aurka jokatu zuten zapatuan eta, nahiz eta kasu bietan galdu, irudi ona eman zuten. 16 urtetik beherakoek Gemikaren aurka amaituko dute denboraldia.



Babesleen eguna ospatu zuten domekan: opari bana jaso eta gero elkarrekin bazkaldu zuten.

motzean

TRIATLOIA

Igeriketa ikastaroa antolatu du Eibar Kirol Patronatoak Urbat igeriketa taldearekin batera. Ikastaroa hilaren 18an hasi zen eta domeketan, hamabostean behin, izango du jarraipena beste bost egunetan: otsailaren 1ean eta 15ean eta martxoaren 1ean, 15ean eta 29an. Goizetan da, 09.30etatik 11.00etara, Ipurua kiroldegian.

ATLETISMOA

Tomas Vouilloz Eibarko Klub Deportiboko atletak lehen aldiz hartuko du parte Espainiako selekzioarekin Parisen jokatu diren junior mailako Proba Konbinatueto Nazioarteko Topaketan. Eibartarrak heptathloian hartuko du parte.

FOBALLA

Eibar Foball Taldeak Raul Navas eta Piovaccariren bajekin egingo dio aurre Realari bihar gaueko 22.00etan Anoetan jokatu den ligako bigarren itzuliko lehen partiduan. Gaizka Garitanoren mutilek zortzi puntuko aldea kentzen diete donostiarrei eta denboraldiko lehen partiduan 1-0 nagusitu ziren Ipuruan.

9.784 ORDUZ EUSKERAZ  Berbetan, 865 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 digito): _____

Herria: _____

e-maila: _____

Jaiotze data: _____

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxeoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**



JAIONE YEREGI (Itxesi dendakoa) "Pertsona eta gorputz guztiak desberdinak gara"

Datorren martitzenean Jaione Yeregi dietetika eta nutrizio teknikari eibartarrak "Gabon osteko gehiegikeriak arintzeko, zer?" hitzaldia emango du. Ekitaldia ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizun dituen lokaletan izango da, eta, betiko moduan, interesa duen edonor etor daiteke Jaionek kontatzeko duena entzutera.

- Zer egin daiteke sasoi honetan gure gorputza arintzeko?

Gabonen ondoren proposamenen garaia izaten da; denok gehiegi jaten dugu, kilo batzuk hartzen ditugu, astunak sentitzen gara eta gure gorputza garbitu eta argaldu nahi izaten dugu. Egin diren gehiegikeriak kentzeko nahikoa da normaltasunera bueltzea. Argaltzeko ez dago denori ongi joango zaigun erremedio edo dieta zehatzik. Pertsona eta gorputz guztiak desberdinak gara. Orekatu eta osasuntsu jaten badugu ez dugu dietarik egin beharko. Kanpoko estruktura ez da aldatzen; bakoitzak bere konstituzioa dauka. Saiatu behar dugu osasuntsu jaten eta horrela lortuko dugu bakoitza bere pisuan mantentzea.

Gabonen ostekoa ez da urteko garairik onena garbitze dietak egiteko. Urtarrilean hotz egiten du eta naturari eta urtaroiari kasu egin behar diogu. Udaberria, aldiz, bizia berpizten denean eta dena lorutzen hasten denean, gorputzak zabaltzeko, garbitzeko garaia da. Neguan jaki sukaldatuak jan behar ditugu. Udaberrian, berriz, fruta freskoak, zukuak... hartzeko garaia da.

- Zer proposatzen duzu gorputza garbitzeko?

Gorputza garbitzeko gibela oso kontutan hartu beharreko atala da; gibela da gure gorputzeko filtroa. Gorputza garbitzeko tratamenduetan aukera asko daude: belarrak, rabano beltza edo orburu anpollak, Epsone gatzak, baraualdiak... Guzti horietaz hitzegino dugu hitzaldian.

Oxidazio zelularri buruz ere egingo dugu berba, hau da, beharko lukeena baino lehen ematen den zelulen zaharkitzea buruz. Zaharkitze honen ondorioz, kanpoko itxuraren zahartzea nabaritzeaz gain, gaixotasun desberdinak izateko aukera ere handitu egiten da. Zaharkitze azkar hori eragiten duten faktoreak aztertzeaz gain, zein elikagaietan bilatu ditzakegun antioxidanteak ikusiko dugu. Bestalde, elikagaien kokapen desorekatuak eta oreka lortzeko jan behar ditugun elikagaiak buruz hitzegino dugu. Gorputzeko beste organu garrantzitsu bat ere aipatuko dugu: azala. Larruzala kanpoko sustantziak barneratze bide zuzen bat dela ahaztu egiten dugu, eta arreta eta kontu handiagoko eskaini beharko genioke.

Bi Bala Belekonek

Gaur gauean, 23.59etan Bi Bala-ren kontzertua hasiko da Belekonek tabernan. Aitzol Barandiaranek eta Iñaki Gurrutxagak ezustean 2013ko Bertso Egunean hasi zuten bideak aurrera egin du eta, Julen Goikoetxea eta Xabier Etxeberria "Pitxu" taldearekin bat egin eta gero, iaz "Wasabi" laukotearen lehen diskoa eman zuten argitarara. Sorrerako bat-bateko bertsogintzak gero eta toki gehiago laga dio musikari, baina edozein modutan ere, nortasun bereziko ikuskizunak eskaintzen segitzen dute.



Pop-rock jaia Jazz 8 tabernan

Zapatuan, 00.30etatik aurrera 60., 70. eta 80. hamarkadetakako kantu ezagunak nagusituko dira Toribio Etxebarria kaleko Jazz 8 tabernan (lehengo Akatsen). Sanandresak geroztik Alberto San Emeteriok gidatzen duen tabernan pop-rock doinuei eskainitako



jalaldia antolatu dute eta, horretarako, Radio Eibar-Cadena Ser irratiko Juanma Canok aipatutako hamarkadetakako abesti ezagunen bilduma prestatu du. Horrez gain, nahi dutenek "photocall" argazkia egiteko aukera izango dute eta antolatzaileek aurreratutakoz, zozketak eta bestelako sorpresak egongo dira.

Euskal Jaia motorrak berotzen hasi da maiatzera begira

Aurreko urteetan moduan, maiatzaren azken asteburuak hartuko du orangoan ere Eibarko Klub Deportiboak antolatzen duen jai berezi hori. 50. edizioaren aurrean gaude eta antolatzaileen asmoetan dago "72 ordu horietan euskal eta jai giroarekin janzteko herria". Kaleek kutsu hori izango dute aipatutako maiatzaren 29, 30 eta 31n eta hainbat aktibitate prestatu dira: kale-animazioa, kontzertu handia, umeendako jolasak, artisautza, herri-kirolak, kantu-afaria eta herri-bazkaria, euskal dantzak... Azken horrekin lotuta, bihar izango da lehen entsegua Mogel Isasi ikastetxean, 11.00etan hasita.



Santa Eskean ...eta kitto!-rekin batzen

Herriko beste hainbat taldek egiten duten mo-
duan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak ere Santa
Ageda bezpera ospatu nahi du aurten, otsailaren
4an. Herriko guraso eta umeei egin nahi die kaleji-
ran parte hartzeko deia. Arratsaldeko 19.00etan
abiatuko dira Ibarkurutzeko iturritik, handik Urki-
zura joateko. Bidean, eta Urkizun bertan ere, kan-
tuan jardun eta gero, ...eta Kitto!-n amaituko dute
mokadutxoa hartuz. Horren aurretik, urtarilaren
30ean, barixakua, entsegua egingo da 17.30etatik
18.30etara ...eta Kitto!-n bertan. Entsegura makila
eraman beharko da, eta kalejira egunean, makilaz
gain, baserritar jantzia edo zapia. Parte hartu nahi
dutenek 943200918 telefonora deitu dezakete.



"Los huerfanitos" gaur 20.30etan

Gaur 20.30etan "Los huerfanitos" antzezlan eskainiko du Traspasos konpainiak Coliseoan (10 euro). Mikel Gomez de Segurak zuzenduta, taula gainean Javier Alcorta, Josean de Miguel, Rafael Martin, Charo Martinez, Jose Ruiz de Azua, Carmen San Esteban eta Gaizka Ugarte antzezleek jardungo dute, gaur egungo errealitatearekin bat datorren istorioa umorea eta haserre nahastuta kontatzen: Ausias Susmozas jaunaren heriotzak denbora askoan elkartu ga-



be zeuden hiru semeak batzen ditu. Argimirok, Bartolomek eta Crispulok aitak emandako maitasun urria konpentsatuko duen dirua jasotzeko prestutasun osoa dute, baina horren ordeztatik nondik oratu ez dagoen zorrarekin egingo dute topo. Hortik aurrera protagonistek hamaika komediari aurre egin beharko diote.

19. Korrika Kulturala Debabarrenan

Eibarraldeko AEK-k gure eskualdeko historia ezagutzeko mendi irteera antolatu du 19. Korrika Kulturalaren barruan: Karakate- Irukurutzetara joateko irteera martxoaren 7an egingo da (09.00etan Untzagan) eta ibilbidea De-

banaturako antropologo eta biologo banak gidatuko dute. Taldea mugatua izango da eta izena eman nahi duenak otsailaren 13ra arteko epea dauka (eibar@ae.org helbidera idatzita edo 943201379 telefono zenbakira deituta).



laburrak

PINTURA TAILERRA

Datorren asteko zapatuan, hilaren 31n, umeendako pintura tailerra emango du Maite Arriagak bere tailerrean, goizeko 10.00etatik 13.00era. Tailerraren prezioa 18 eurokoa da eta parte hartzeko izena eman nahi duenak 622053933 telefono zenbakira deitu beharko du, izen-abizenak eta adina zehaztuta. Margotzeko erropa egokia (zikintzeko modukoa) eramatea komeni da.



EIBAR KANTUAN

Bihar 19.00etan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Mariariak emanaldia eskainiko du Elgetako Kafe Antzokian. Eibar Kantuan jaialdiaren bigarren emanaldia Trio Medianoche hilaren 31n eskainiko du, 22.30etatik aurrera, hori ere Elgetan. Informazio gehiagorako 943789085 telefonora deitu daiteke.



JOSE AIRAS FERNANDEZ

*"Kantuz ezagutu giñan
eta kantuz agurtu
kantuz beti beti
oroituko zaitugu"*

UNTZAGA KORUKO ZURE LAGUNAK



Zarzelaren antologia zuzenean

Datorren asteko eguenean (hilaren 29an), 20.30etan, Ozenkik antolatuta Zarzelaren Antologia eskainiko dute Coliseoan Miren Urbieita sopranoak, Luis Alberto Giner tenoreak eta Andres del Pino baritonoak, Donostiako Lirica Sasibil abesbatzak eta Sotto Voce orkestrak lagunduta. Josean Garciak zuzendutako ikuskizunean, musikariez gain, Iker Casares, Koldo Torres eta Ana Miranda aktoreek ere hartuko dute parte, denek elkarrekin zarzuela ezagunetako kantuek zuzenean eskaintzeko. Sarreak 25 euro balio du eta kutxabank.es helbidean zein Coliseoko txarteldegian aldeztirik erosteko aukera dago.

Koldo Badilloren argazkiak Zarautzen

Urtarrilaren 13tik otsailaren 23ra bitartean Zarautzeko Photomuseum-ean "Del Caos al Laberinto", Koldo Badilloren argazki erakusketa egongo da ikusgai. Herririk herri, aretorik areto joango den erakusketa argazkilariak gure basoetara buruzko duen ikuspegi pertsonala islatzen da. Erakusketa martitzenetik domekara zabalduko dute, goizez 10.00etatik 14.00etara eta arratsaldeztatik 17.00etatik 20.00etara (eguzten eta barixakuetan sarreara doan).



Lagun taldearekin Europa ezagutzen

Aurten 25 urte betetzen dituen Lagun Taldea adimen urritasuna dutenen elkarteak "Desmadre Tours LT" ikuskizun arrakastatsua eskaini zuten aurreko zapatuan Hezkuntza Esparruan. Ikustera joan zirenak ederto pasatu zuten gazteen dantza eta antzekizunekin eta, horiei begira, Europako hainbat herrialde ezagutzeko aukera izan zuten jarlekutik jaikitzeko premia barik. Datorren asteburuan



ikuskizunaren bigarren saioa eskainiko dute ordu eta toki berean (zapatuan, 17.30etan Hezkuntza Esparruan).

Guraso berbalagunak Arma Museoa

Gurasoak Berbetan egitasmoko ume eta guraso talde polita elkartu zen, aurreko domekan, Arma Museoa ikustera joateko. Gidari baten laguntzarekin, bi

orduz, Eibarrek armagintzan egindako lanari erreparoa egin zioten, erakusketa bertan dauden argazki eta materiala ikustearrekin batera. Bisitak Portale-



an museoa zabaldu zutela 8 urte betetzen ziren egunarekin bat egin zuen eta, besteak beste, martxoaren 29ra arte ikusgai egongo den "Eibar Industrialia 2014" erakusketa ikusteko aukera izan zuten. Portaleko azken pisuan dagoen erakusketa berezi hori eguztaztenetik zapatuta 16.00etatik 20.00etara bisitatu daiteke eta domeketan, berriz, 10.00etatik 13.00era.

Danborradaren kontzertua hartu zuen Coliseoak

Usartza Txistulari Bandak, Eibarko Danborradaren ordezkariak eta Molto Vivace metal boskoteak lagunduta, Danborradaren Kontzertua eman zuten domekan Coliseoan. Urtero San Sebastian egunaren harira antolatzen duten kontzertuan, Do-



nostikiako Martxarekin batera Eibarko Danborradako doinu ezagunak eskaini zituzten.

Danborradaren doinuek bere tartea izan zuten aurreko domekan Astelenan.
LEIRE ITURBE

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANE, hillaen 19xan bederatzirte egin zenduazelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, MALEN, aurreko astian 3 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat xagu txiki, aitxitxa Pedro eta amama Maiten partez.



Zorionak, JULEN Blanco Gantxegi, txapeldun, hillaen 19xan bost urte bete zenduaz-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, ION, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Ondo ospatu! Besarkada eta laztan haundi bat danon partez.



Zorionak, IKER, datorren martitzenian 10 urte egingo dozuz-eta. Muxu bat Nora, amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, JOSU, astelehenian sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez eta ondo ospatu lagunekin.



Zorionak, IRATI (sei urte) eta PAULE (gaur hillaebetetxua). Gure etxeko printzesa bixentzat, aitton-amonen partez.



Zorionak, MARIA (domekan 15 urte beteko dozuzelako) eta JORGE (hillaen 8xan izan zan zure eguna). Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KOLDO (domekan sei egin zenduaz-eta) eta HARITZ (gaur 15 betetzen dozuz). Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN eta NORA, 3 eta 7 urte egin dozuez-eta. Zuek bai neska haundixak! Patxo potolo bat danon partez!



Zorionak, NAHIA, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixakuaeren partez.



Zorionak, ANER, lau urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, LUKA!, hillaen 20xan hiru urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat danon eta, batez be, Anen partez.



Zorionak, JURGEN, atzo hiru urte egin zenduaz-eta, txapeldun! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIHAN, atzo bost urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

24an: 17.00, 19.45. 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30

"Dos días, una noche"

Zuzendaria: J.P. Dardenne



(2 ARETOAN)

24an: 17.00, 19.45. 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30

"Babadook"

Zuzendaria: Jennifer Kent



(ANTZOKIAN)

24an: 19.45. 22.30
25ean: 20.00
26an: 20.30

"Into the woods"

Zuzendaria: Rob Marshall



(ANTZOKIAN)

24an: 17.00
25ean: 17.00

"Dos tontos todavía..."

Zuzendaria: Bobby Farrelly



BARIXAKUA 23**GAZTELEKUA**

16.30. Eskulana: giltzarriak. Indianokuan.

ANTZERKIA

20.30. "Los huerfanitos" antzezlan, Traspasos taldearen eskutik (10 euro). Coliseoan.

KONTZERTUA

23.59. Bi Bala. Beleko tabernan.

ZAPATUA 24**GAZTELEKUA**

17.00. Eskulana: giltzarriak. Indianokuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "2015eko egutegi tailerra", 3-12 urte bitarteko umeentzat. El Corte Inglesan.

LAGUN TALDEA

17.30. "Desmadre Tours LT" ikuskizuna (euro bi). Hezkuntza Esparruan.

JAIALDIA

00.30. Pop-rock jaia, 60., 70. eta 80. hamarkadetako musikarekin, Juanma Canoren (Radio Eibar-Cadena Ser) eskutik. Photocall-a, opariak... Jazz8 tabernan (T. Etxebarria, 2).

DOMEKA 25**MUS TXAPELKETA**

16.00. Euskal Herriko VII. Mus Txapelketako Eibarko kanporaketa. 20 euro bikoteko..Klub Deportiboan.

**GAZTELEKUA**

17.00. Mastertxer lehiaketa. Indianokuan.

ASTELEHENA 26**IKASTEN**

10.00. "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

MARTITZENA 27**IKASTEN**

10.00. "Etica y cine" hitzaldia, Iñigo Marzabalen eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Abordar los conflictos en la familia" hitzaldia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Ignazio Zuloaga institutuan.

HITZALDIA

19.00. "Gabon osteko gehiegikeriak arintzeko, zer?", Itxesiko Jaione Yeregiren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuaratean).

KOKO DANTZAK

20.00. Koko-dantzak ikasteko entsegu irekia. Portalean (3. solairuan).

EGUAZTENA 28**IKASTEN**

10.30. Mendi ibilaldia: "Bergarako itzulera" (Agorrosin-Agorrosin, 9'2 km, jatekoa eraman). Irteera Ego Gaineko autobus geltokitik.

PAGATXA

17.00. Urteko batzarra. Goruntz abesbatzaren emanaldia. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Familian gatazkei aurre egitea" hitzaldia (elebidun), DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Ignazio Zuloaga institutuan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 29**IKASTEN**

10.00. "Agricultura orgánica, ecológica y transgénica" (1. zatia), Juan Canalesen eskutik. Armeria Eskolan.

KALERATZEAK STOP

11.00. Kaleratzeak Stop Debararenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

ZARZUELA

20.30. "Zarzuclaren antologia" (25 euro). Coliseoan.

hildakoak

- Nicolas Aranzeta Gisasola. 87 urte. 2015-I-14.
- Herminia Ferreño Lage. 84 urte. 2015-I-14.
- Faustino Ruiz Ruiz. 72 urte. 2015-I-14.
- Encarnacion Sanchez Benitez. 87 urte. 2015-I-15.
- Javier Etxebarria Errazu. 78 urte. 2015-I-16.
- Manuel Angel Alvarez Fernandez. 69 urte. 2015-I-18.
- Jose Airas Fernandez. 79 urte. 2015-I-18.
- M^o Carmen Mtnez.-Alcocer Mtnez.-Blanco. 50 urte. 2015-I-18.
- Juliana Mandiola Maguregi. 91 urte. 2015-I-18.
- Mauricio Cofreces Martin. 85 urte. 2015-I-19.

jaiotakoak

- Unax Elordi Alonso. 2015-I-5.
- Esmael Ben Haddou Aityassine. 2015-I-12.
- Emran Ousain Ben Yahya. 2015-I-12.
- Maren Rodriguez Lopez de Gamiz. 2015-I-12.
- Elene Uriarte Arregi. 2015-I-12.
- Xiker Bocos Montero. 2015-I-13.
- Intza Arrieta Arizaga. 2015-I-16.

HOROSKOPOA**ARIES**

Ez dakit zelan egiten duzun horrenbeste jan eta ez loditzeko. Esaiezu sekretua dietan dauden guztiak. Eskertuko dizute.

TAURUS

Egun guztia ematen duzu telebistaren aurrean; hurrengoa zu ere telebistan agertzea izango da. Aukeratu saioa!

GEMINI

Beharrezkoa da ogitara ere autoz joatea? Laga egizu autoa behingoz eta erabili egizuz hanka eder horiek!

CANCER

Bizitza honetan arriskatu beharra dago: ezin zara beti zer gertatuko den zain egon. Erabaki zuk zer nahi duzun bizi.

LEO

Egun gutxi barru mugikor bat topatuko duzu kalean: jabeak deitzen duenean, ezagutzen duzula konturatuko zara.

VIRGO

Zalantza asko dituzu eta guztiak lagun beraren inguruan. Zergatik ez zara berarekin berba egiten ausartzen?

LIBRA

Betiko lagunak inguruan izatea ona da, baina jende berria ezagutzea ez da kaltegarria. Izan irekiagoa: zu irabazle!

SCORPIUS

Ez duzu pazientziarik eta nahiago izaten duzu gauzak azkar egitea ondo egitea baino. Ez larritu eta lasaiago hartu dena.

SAGITTARIUS

Triste samar zabailtza eta lanak ere zoraturata eduki zaitu. Hartu atseden eta aprobeztatu Spa-ren bat ezagutzeko.

CAPRICORNIUS


Zure akatsak onartuta, aurrerapausoa eman duzu. Hemendik aurrera, horiek buelta ematen saiatu beharko zenuke.

AQUARIUS

Oso sentibera zaude egunotan; zure sentimenduak erreprimitzen dituzunez, hobe izango zenuke unekoa askatzea.

PISCIS

Zure izaera muturrekoa da: jakin behar duzu gauzak ez direla beti zuri edo beltz izaten. Grisak ikustea komeni zaizu.



erakusketak

- ✓ **Urtarrilaren 31ra arte**
JOAN MIMOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan
JON AGIRREREN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
JUAN ZAMORAREN argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.
- ✓ **Otsailaren 1era arte**
"EIBAR K.E. / 75. URTEURRENA" erakusketa.
Portalean.
- ✓ **Otsailaren 8ra arte**
MARTIN UNANUE AÑIBARROREN "Uraren esker onari mandalak" erakusketa.
Untzagako Jubilatua Etxean.
- ✓ **Martxoaren 1era arte**
JOSEBA ARGINZONIZ-EN erakusketa.
El Corte Inglesan.
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa.
Armaztagaren Museoa (Portalean).

ikastaroak

- ✓ **Erorikoak prebenitzeko aholkuak**
 64 urtetik gorakoentzat. **Noiz eta non:**
 Urtarrilaren 26an eta otsailaren 2an,
 16.30-18.00. Untzagako jubilatuen etxean.
Izen-ematea: Anbulatorioan, 943201074.
- ✓ **San Blas opilen ikastaroa**
Noiz eta non: Otsailaren 1ean, 10.00etan,
 Portalean (sukaldean). **Izen-ematea:**
 Doan. Arrate Kultur Elkarte. 943202299
 edo arratekultu@gmail.com
- ✓ **Bizitzarako psikologia praktikoa**
Noiz eta non: Urtarrilaren 27tik ekainaren
 30era arte, hileko azken martitzenean,
 16.30-18.30. Portalean (ikastaro gelan).
Izen-ematea: 678068959 / 943700828
 edo asoc.defibel@gmail.com
- ✓ **Istripuak nola saihestu eta lehen sorospenak haurtzaroan**
Noiz eta non: Otsailaren 2tik 6ra arte
 (astelehenetik barixakura), 10.00-12.00,
 Eibarko DYA-n (Pagaegi, 5). **Izen-ematea:**
 943464622 (60 euro).

farmaziak

- ✓ **barixakua 23**
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **zapateria 24**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 25**
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **astelehena 26**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **martitzena 27**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- ✓ **eguztina 28**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 29**
 EGUNEZ **Larramendi** (Galbeton, 19)
- ✓ **barixakua 30**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

SUDOKUA

			2			7	
7	1			6	4		2
		2	3				
		1			5		8
6							7
	2		7			5	
					7	3	
3			8	2			1
	9				6		

4	5	6	1	8	9	3	7	2
1	8	2	5	3	7	6	4	9
3	9	7	6	4	2	8	5	1
2	3	5	4	1	6	7	9	8
8	6	1	9	7	5	4	2	3
7	4	9	8	2	3	5	1	6
9	1	3	7	6	4	2	8	5
6	7	8	2	5	1	9	3	4
5	2	4	3	9	8	1	6	7

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
- 3 logetakotako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.
- 1/2 logetako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-282203.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Marradun garaje plaza alokagai. Ardantzako geltoki ondoan, Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.
- Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m². Tel. 679-425467.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 657-771496.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-765921.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko, ostalaritzan jarduteko... Tel. 943-175048.
- Neska eibartarra eskaintzen da goizez administrazio lanak egiteko (esperientzia luzea) eta umeak eskolara eramanez eta zaintzeko. 658-845081.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaintzeko, ... Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-068463. Herminia.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. Ordu-tegi zabalak. Tel. 657-481028. Felipe.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 655-231059.
- Neska eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko. Tel. 727-731386.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Esperientzia. Tel. 697-754174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-846244. Neira.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak eta mugikortasun arazoak dituztenak zaintzeko. Baita ospitaletan ere. Esperientzia garabi zerbitzuan. Tel. 600-005160.
- Neska eskaintzen da etxeak eta bulegoak garbitzeko (esperientzia) eta umeak zaintzeko. Tel. 943-901793 eta 603-644854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-534125.
- Erizaintza ikaslea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta taberna zerbitzari edo sukaldari jarduteko. Tel. 602-022174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 608-523426.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin... Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdau/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldetan edo gaez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 608-886701.
- Emakumea eskaintzen da gaez garbiketara lanak egiteko. Tel. 631-098995.
- Neska eskaintzen da 13.00etatik aurrera nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-757528.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-746668.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da hotel kamarera jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-259560.
- Emakume eibartarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-258913.
- Neska eskaintzen da nagusiak (baita gaez ere) edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 674-713262.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan... Esperientzia. Tel. 674-342769.
- Neska eibartarra eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-008974.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-362571.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-408528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-223601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-199533.
- Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak eta plantxa orduka egiteko. Esperientzia. Tel. 622-037598.
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka. Tel. 626-197217.

4.2. Langile bila

- Quechua motxila galdu zen Argatxako jardinetan urtarilaren 9an. Sarituko da. Tel. 676-729551.
- Eibarko Kirol Sarien ekitaldian baten batek buff-a laga zuen ahaztuta. ...eta kitto!-n jaso dezake. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen arteko trukeak eta azterketa prestaketa (EO). Tel. 670-793312.
- Lizentziatu euskalduna eskaintzen da klase partikularrek emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-976232. Ane.
- "Gantxiloa", "gantxilo tunisiarra" eta "wow gantxiloa" ikastaroak ematen ditut Itzamna akademian (Bitor Sarasketa). Zapatuetan, hamabostean behin (17.00etatik 19.00etara). Tel. 649-100185.
- Ingeleseko klase partikularrek ematen dira, 4 urtetik aurrera. Talde mugatua. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.
- DBH eta Batxilergoko Matematikako etaberrako klaseak ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- Fisika eta Matematikako klase partikularrek eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: EGA, HABEren perfilak, Osakidetza profila... Tel. 620-608065.
- Arkitektura ikasketaduna eskaintzen da Baxiler Teknikoko eta DBH 3-4 mailako klase partikularrek emateko. Tel. 679-843282.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Jose Kareaga pintorearen "Hayas de Arrate" koadroa saltzen dut. Tel. 619-163031.
- J.M. de Barandiaran-en "Obras Completas"-eko tomoak (1etik 15era) salgai. Ilustrazioekin. 180 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
- Ontzi-garbigailua, Balay markakoa, salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 636-906921.

6.3. Galdau/Aurkitu

- Quechua motxila galdu zen Argatxako jardinetan urtarilaren 9an. Sarituko da. Tel. 676-729551.
- Eibarko Kirol Sarien ekitaldian baten batek buff-a laga zuen ahaztuta. ...eta kitto!-n jaso dezake. Tel. 943-200918.

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
T.F: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistikak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuarta
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• **Katarata ebakuntzak**
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48 EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54 ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidere Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak
- Hiperaktibitatea, Autoestimua, Motibazioa, etb.

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

--- (Ume eta helduendako) ---

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com